

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko ekainaren 12ko erabakiaren laburpena: Vitoria-Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntza ekonomikoen 2020ko berriazko deialdia onestea

BDNS(Identif.): 511275

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehen. Onuradunak

Enpresa pribatu txikiak, forma juridikoa edozein izanik ere, baldin eta egoitza eta helbide fiskala Vitoria-Gasteizen badute, hamar soldatapeko baino gutxiago badituzte, urtean bi milioi eurotik beherako balantze orokorra badute, 2020ko martxoaren 14a baino lehenagotik Ekonomia-jardueren gaineko Zergan alta emanda badaude eta deialdiko baldintzak betetzen ez dituzten edo helburu sozialaren bitartez turismoaren sektoreko jarduera egiaztatzen ez duten enpresekiko loturarik edo halakoen partaidetzarik ez badute.

Bigarrena. Xedea

Vitoria Gasteiz marka turismo eta biltzar-helmuga iraunkor gisa sustatzeko jardueren antolakuntza bultzatzera zuzendutako aparteko laguntzak emateko baldintzak arautzea 2020an gauzaten diren jardueren gastu arrunt eta zerbitzu-eskaintzetarako dirulaguntzak.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Bi dirulaguntza-ildotan banatuko da deialdia:

1. Iraunkortasuna sustatzen eta produktu turistiko bereizia eskaintzen lagunduko duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatea.
2. Biltzar-produktu edo esperientziak sortu eta garatea, edo Vitoria-Gasteizera biltzar-jarduerak erakarri edo halakoak dinamizatzeko ekintzak.

Hirugarrena. Oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak 2019ko abenduaren 13ko ALHAO, 147. zenbakia, eta 2020ko ekainaren 12an, berriz, 30. ildoko laguntzen Produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzen deialdia berriazko oinarriak.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

40.000,00 euroko zuzkidura du deialdi honek, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0810.4331.471.04 partidaren kontura Garapen lokala Ekitaldiak erakartzea, bitan banatuta, hots, ehuneko 50 goian adierazitako bi dirulaguntza-ildoetako bakoitzeko.

Enpresa eta urte bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da. Onartutako gastuen ehuneko 50ekoa izango da gehieneko zenbatekoa, gehienez 5.000,00 euroko mugarekin, lehen ildoan, eta 10.000,00 eurokoarekin, bigarreanean.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hilabete, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 15a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*